

FINKATZE PROIEKTUEN ADIBIDEAK/AHOLKULARITZA LAGUNTZA (25 ORDUKO POLTSA)

Proiektuek enpresen eta erakundeen kudeaketa sistemarekin harremana izango dute, EUSKALITeko laguntza bisitan (B modalitatea) lehenetsitako hobekuntza arloekin.

Elementuetako bakoitzari dagokionez, esate baterako, honakoak egin litezke:

1. ESTRATEGIA ETA EMAITZAK

- Informazio iturrien optimizazioa, merkatuen analisia...
- Adierazle koadroaren sistematizazioa eta optimizazioa.
- Antolaketa ereduaren definizioa: prozesukako kudeaketa.

2. BEZEROAK:

- Arlo komertzialaren hobekuntza: Komunikazioko ekintza komertzialak diseinatzea erosteko eta ez erosteko arrazoiak jasotzeko.
- Kanpo komunikazio kanalen kudeaketa (sare sozialak, newsletterrak, webgunea...), bezeroek erosteko dituzten motibazio ugariei bideratua.
- Marka kudeaketa: posizionamenduaren definizioa, ekintzen diseinua, marka integraleko estrategia baten gauzapena eta jarraipena, balio proposamenaren definizioa.
- Xede merkatuaren definizioa (nazionala edo nazioartekoa), produktuak/zerbitzuak bideratzeko.

3. PERTSONAK:

- Lanpostuen definizioa, konpetentzien matrizearen garapena, baliokidetasunen matrizea, etab.
- Barne komunikazio kanalen definizioa eta pertsonen parte hartzea sustatzeko metodologiak.
- Gogobetetze inkesten diseinua, gauzapena ebaluatzeko metodologiak, etab.

4. BERRIKUNTZA:

- Estrategiari egokitutako berrikuntza plan bat garatzea.
- Erakundearen ideiak sistematikoki jasotzeko metodologia (ebaluazioa, leheneste modua, arduradunak finkatzea...)
- Proiektu esanguratsuak kudeatzeko metodologia.